



BERTSOLARITZA AZTERTZEKO BIDEAK

Juan Mari LEKUONA

Ahozko literaturak dituan mota eta osakaletan, bertsolaritza izan da gure artean gehienik aztertu eta argibidetu izana. Eta euskeraz idatzitako poesia bera baiño ere sakonago eta zabalago aztertua izan delakoan nago; ez bait da egin gure poesia idatziaren barne-erakuntzaz ikerketa-lan funtsezkorik.

Bertsolaritzari buruz, ordea, lan estimagarriak azaldu izan dira. Eta gure arteko olerki herrikoi hau, berezko inguru-giroan aztertu zuena, Manuel Lekuona izan zen, bere *Literatura oral vasca* izeneko liburuan. Eskolatuen olerkigintzatik bereizten du bertsolaritza eta ahozko

literatura maillan kokatzen du, hemen duelako bere lekua gure herri-olerkiak. Eta bereizkuntza hau egin ondoren, ahozko literaturaren giroa ikusten du, beste herrialdeetan ematen den bezela. Gero, berriz, literatura mota honen bereizkuntzak finkatzen ditu, gure herrian nola ematen diren puntuz puntu agertuaz. Nahiko garbi gelditu ziren gure bertsolaritzaren barne-egitura, teknika eta kantuzko gertakizun honen osakaiak.

Gero, handik 30 urtera, bertso-paperaz eta gure folklore-bildumaz baliaturik, Antonio Zavalak bertso-

laritzaren historia laburra eman zigun. Hau, XIX eta XX. gizaldietako bertsolaritzaren kondaira da. Ondo finkaturik gelditzen dira gure bertsolarien belaunaldiak: Pernando Amezketarra'rena, Xenpelarrena, P. M. Otañorena eta Txirritarena. Baiñan aztertu gabe gelditzen da gerrondoko belaunaldia. Eta gaiaren mugatze balios hau ezezik, egillearen azterketan gai honen bere-berezko jakingarri asko arki daitezke: eta laguntza ederra da liburu hau ikerketa berrietan aurrerapide egin nahi duenarentzat.

Garai beretsuan, Santiago Onaindiak egindako «Gure bertsolariak» izendatzen den liburua atera zen. Bertsolaritzaren gaiari bakarrik heltzen dio eta arlo honen alderdi gehienak ukitzen ditu. Azterketa luzea da, ondo tajutua, aberasgarria. Ez du, agian, bide berririk zabaltzen, baiñan oso-osoko lana da, bazterrera utzi eziña.

Bada beste lan bat ere, gure artean gutxi ezagutua dena; baiñan aipamen bat merezi lukeena: Piarres Lafittek «Koblakarien legea» izenarekin argitaratu zuen liburuxka; txikia bezain balios den idazlana. Aholku zenbait ematen dira bertsolari gazteen laguntzeko. Kantu ederrenei lotutzen da, eta hortik ateratzen ditu legeak; nola behar duten izan gaiak, neurriak, doiñuak, puntuak, mintzaerak eta bertsogintzan erabilli behar lirakeen edergailluak. Bertso-zaleak—ikasle, nahiz entzunle—eskolatzeko aholku argi eta bizi-bizirik ematen dizkigu. Tamala da idazlan hau gure artean gehiago ezagutu eta erabili ez izana.

Baiñan, bizitza aurrera doan eran, etorri behar dute, bertsolaritza aztertzeko lan hontan, aurrerapide egin

araziko diguten lan-metodo berriak. Besteak beste, neronek oraintsu erabilli dutena da bat: gaurko zozio-kulturazko aldaketak bertsolaritzari dagoiten eragiña aztertzea. Bizitzak, bere mailla guzietan, azterketa berriak egitera garama; eta azterketa berri hauek, berriz, ikusmolde berrietara. Eta horrelako zerbait egiten hasi beharra zegoen bertsolaritzarekin ere.

Gure herri olerkiaren gertakizun hau oraindik bizirik dagoen zerbait da; gaurko gizonek erabillia den zerbait. Horregatik, kulturaren beste agergerrietan bezela—dela filosofian, dela literaturan, dela artean—, bertsolaritzan ere nabaritu beharra zegoen gaurko gizonaren eragiña: gaurko joerak, gaurko legeak, gaurko kezka eta ardurak. Bertsolaritza, bizi denez gero, gaurko gizonaren «itzulpen» bat da bere txikian. Baiñan, bestalde, gaurko gizonaren arabera bertsolaritza ikusteak, beste ondore jakingarri hontara garama: bertsolaritzaren historia idaztera eta berau nundik nora doaken prospektiba apur batean ikustera. Hau izan da bertsolaritzari buruz egiten ari naizen eta Donostian laburpenez eman nuen lanaren helburu eta xedea; hau «Bertsolaritzaren aldaketak XX gizaldian» lantxoaren egitekoa.

Hogeigarren gizaldian baditu Errenderiak bertsolaritzaren agergerri gogoangarriak: bertsolari bezela, Txirrita; bertso-saioa bezela, J. K. Zapirainen «Santa Jenobebaren bizitza»; bertso-bilduma bezela, J. J. Makazagaren argitaraldiak, batez ere «Bertsolariak» asterokoa, eta abar. Eta Errenderiak, euskeraz mintzo deño, aldian aldiko egin den bertsolaritzan arkituko ditu bere herri olerkaritzaren eta kantagaien harrobi jator eta aberatsa, gure letragintzaren izankera berelzia.